Eraberritze-bidean aurrera egitea eta espiritualtasuna lantzea lehentasun dugularik, ahaleginak egiten jarraitzea nahi nuke gazteei kristau-heldutasunerako bidean eta bokazioa aurkitzeko bidean lagun egiten. Elizbarrutiko gure elkartean etengabeko kezka izan behar du horrek, eta Gipuzkoako fededun elkarte osoaren konpromisoa. Atergabe egin behar dugu otoitz, eta balioztatu, bizkortu, babestu eta bultzatu gure neska-mutilen parte hartzea beraienez antolatuko diren ekintza berariazkoetan, baita kristau-elkarreen gainerako ekintzetan ere. Bidelagun egokien bila gabiltza, eta gazte- eta bokazio-pastoraltzarako egitasmo bateratua egiteko oinarriak jartzen ari gara. Datorren urteko udan, uztailaren azken aldera, Elizbarrutian nahi izango duten gazte guztiekin parte hartuko dugu «Gazteen Jubileuan», Erroman, Frantziako Aita Santuaren ondoan. Egin ditzagun eginahalak elkarrekin ekintza hori bultzatu eta sostengatzeko.

Adiskide maite hori, nire gonbidapena luzatzen dizut Borja gure senidea apaiz ordenatuko dugun Eukaristia Nagusira joan zaitezten. Ospakizun honekin hasiko dugu, ofizialki, Elizbarrutian 2024/2025 lan-urte pastoralara. Urretxuko Tourseko San Martin parrokian izango da ordenazio-ospakizuna, irailaren 29an, igandez, arratsaldeko 18:00tan. Ospa dezagun eta sendotu geure

Borja. Con esta celebración, iniciamos oficialmente el nuevo curso pastoral diocesano 2024/2025. La celebración tendrá lugar en la Parroquia de S. Martín de Tours, en Urretxu, el próximo día 29 de septiembre, a las 18.00hs. Celebremos la fe y fortalezcámosla al participar juntos en la mesa del Señor. Invito especialmente a todos los sacerdotes de la diócesis que puedan a acompañarnos en el altar. Oremos intensamente por Borja, por quien va a ser nuestro nuevo presbítero. Que el Señor le bendiga y le acompañe siempre en su ministerio. Os encomiendo en mis oraciones.

In Corde Matris,

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Obispo de San Sebastián

fedea, Jaunaren mahaian elkarrekin parte hartuz. Dei berezia egiten diet Elizbarrutiko apaizei, aldare inguruan gurekin bil daitezten. Egin dezagun otoitz sutsuki Borjaren alde, aurki gure presbitero berria izango baitugu. Bedeinka dezala Jaunak eta lagun izan dezala beti bere zerbitzuan. Gogoan zaituztet nire otoitzean.

In Corde Matris,

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**

Donostiako Gotzaina

**ON BENANTXIO OTAEGI APAIZAREN HILETAN
EN EL FUNERAL DEL SACERDOTE D. BENANTXIO OTAEGI**

Elgoibarko San Bartolome parrokian

2024 ekaina / junio 12

On Benantxioren senide eta lagun maiteok,
gerturatu zareten apaiz maiteok,
Elgoibarko kristau elkarteko adiskide anai-arreba-maiteok.

Elgoibartarrak ondo ezagutu eta asko maitatu duzue On Benantxio, bere apaiz bizitza gehiena hemen, herri honetan eman zuena, eta baita inguruko leku bazuetan ere. On Benantxiok pareta hauen artean sarritan ospatu zuen meza. Agian baita ere gure familiako baten hileta elizkizunak ere. Ziur denok bere figura, bere irribarrea, bere hizkera, bere izateko modua oroimenean dugula.

Bizitza oso baten ondoren joan zaigu gure apaiz maitea bere betiko-etxera. Berak, bere ibilbidea egin du. Gure fedeak esaten digu bera jadanik badagoela atsedena hartzen Jainkoaren besoetan. Eta horretan sinisten dugu kristauok. Esperantza horrekin egiten dugu gure erromes bide hau. Gure apaiz Benantxiok fede horretan sinisten lagundu zigun. Egunen batean gu ere, gure ibilbidea amaitu ondoren, Jainkoaren etxera bueltatuko gara. Han zoriontsu izango gara betirako Jaunaren besoetan, gure maiteokin batera.

Hemen zaudetenok nik baino hobeto ezagutu zenuten on Benantxio. Nik baino askoz gehiago tratatu duzenok, Jainkoak oparitu ziguna beraren bitartez

ezagutu duzue benetan. Nik azken bi urte hauetan ezagutu dut, baina berarekin behin baino gehiagotan hitz egiteko aukera izan dut. Gizon atsegina, ontasunez betea, adeitsua, bere eginbeharrak betetzen zintzoa. Benetan apaiz hurbila eta guztiokin laguna. Gaur, agur egitean, maitasunez gogoratzen ditugu bere izaera eta jokaera. Batez ere, gogoratzen dugu nola fedea eta itxaropena nagusi izan ziren bere bizitzan. Oso apaiz ona izan da on Benantxio. Benetan artzain ona, artzain ardi usainekoa, Frantzisko Aita Santuak dioen bezalakoa. Berak utzi digun ondarea hauxe da: bera ezagutu eta tratatu izanak, pertsona hobek egin gaitu.

Hemen gaude, beraz, beraren alde otoitz egiteko eta bere apaiz bitzta gogoratzeko. Gure Bikario Nagusia, On Mikel Aranguren, Azpeitiko semea baita ere, hemen dugu, gure apaizentzako ordezkaria On Jon Molina ere hemen dugu, denak eliza eta elizbarrutiaren hurbiltasuna sentiarazteko. Horrela esaten diogu agur On Benantxiori eta desiatzen dugu elkar berriz ikustea egunen batean Jaiu-naren etxean.

Asko ikasi behar dugu benetan gure apaiz zaharregandik. Asko ikasten dugu beraien elizarekiko leialtasunagatik eta fedearen testigu eta sustatzaile izateagatik. Gure herrian, historian zehar, apaizak dena izan dira herritarrentzat oso momentu desberdinetan.

Orain agian beste zerbitzu eta gizarte laguntzak ditugu, baina orain dela berrogei eta hamar edo hirurogei urte, gure herriko apaizak ziren gure psikologoak, gure Gizarte Langileak, gure lagunak bakardadean sentitzen ginenean, askotan bere poltsikotik dirua jarri behar izan zuten gu laguntzeko. Beti egon dira hor, gure arazoei edozein soluzio bilatzeko. Bai, asko zor diegu gure apaiz zaharrei, benetan. Ona da gogoratzea eta gogoraraztea. Fedearen testigu izateaz aparte, badakigu zein gauza onak egin dituzten gure apaizek, agian ixil-ixilean, gure herrietan.

On Benantxio horrelakoa izan da herritarrentzat. Umila eta apala, guztion laguna... Pertsona ona, dudarik gabe. Jainkoaren gizon bat joan zaigu. Beste bat. Jainkoari eskerrak eman besterik ezin dugu egin. Eta hori da gaur Jainkoari eskatu nahi dioguna. Zeruko Aita onak besarka zaitzala, sekula amaituko ez den besarkada santuan.

Ziur bere apaiz bizitzan eragin handia izan zuela herri honetako askorengan. Eta horregatik eskerrak eman behar dizkiogu Jaunari.

Gogoratu zaitez gutaz, Benantxio apaiz lagun eta anaia maitea. Gogoratu zure elizbarrutiaz, Jesus aurrez-aurre ikusten duzunean. Santuen komunioan fedez eta konfiantzaz beterik eskatzen dizugu orain, Artzain Onaren besoetan orain zauden horrek: lagundu egiozu zure elizbarruti honi gure artean sortu daitezen herri honen biharko fedea zainduko duten apaiz jator eta jainkozaleak, benetan artzain onak, zu izan zinen bezalakoak.

Agur eta eskerrik asko, On Benantxio, gure apaiz maitea. Mila esker zure bitzita guretzat zeruko argiaren izpi handi eta distiratsu izan bait da. Egun handira arte, lagun eta artzain ona. Eskerrik asko. Haren arimak, eta hildako fededun guztien arimek, Jainkoaren errukiagatik, Bakean atseden har dezatela. Hala bedi.

URRATEGIKO ANDRE MARIAREN EGUNA **DÍA DE LA VIRGEN DE URRATEGI**

Azkoitia, 2024 uztailaren 14an

Apaiz lagunok, Azkoitiko bizilagun eta Urrategiko Ama Maria santuaren maitaleak, agintari agurgarri eta gaurko festarako etorri zareten guztiok, Ba-kea zuekin, anaia maiteok!

Benetan gaur jai eguna dugu hemen, Azkoitiako Urrategiko basilizan; eta egiaz alaitasun handikoa. Egun kuttuna. Ama Mariaren jaia ospatzen dugu. Eta Ama Mariarekin lotuta, baita ere ospatzen dugu hemen, denok familia senti-

tzen gabela elkarrekin. Benetan asko pozten naiz ni neu ere, gaur hemen zuekin Azkoitian berriro egoteaz eta gure fedea elkarbanatzeko aukera hau edukitzeaz. Eskerrik asko guztioi hemen bilduta egoteagatik meza hau ospatzeko.

Noizean behin festa egitea komeni zaigu, eta ohiko bizitzako kezka eta nekeak alde batera uztea. Esperientziak esaten digu, jaiak lanaren nekea arintzen duela. Ondo datorkigu gure auzokide eta lagunekin bizitzaren poza sentitzea eta partekatzea. Dena ez da lana gure bizitzan. Ona da, benetan, ardurak egun batzuetarako eten edo alboratzea. Ze poza eta alaitasuna ematen duen herritar eta gure inguruko bizilagunekin lotuta eta gertu sentitzeak!

Urrategiko Amaren festa eta baseliza hau garrantzitsua da hemen gauden guztiontzat. Agian gure polit bat besterik ez dela dirudi, baina zuentzat, herriko biztanleentzat eta auzokideentzat leku berezia da benetan. Hemen, herri sentitzen gara besteekin, kristau elkartea osatzen dugula ere sentitzen dugu. Pareta hauek eta Amaren irudia gure fedearen testigu izan dira belaunaldiz belaunaldi... Zenbat urte. Gaur laurungarren urteurrena ospatzen dugu, baina herri honen fedea, gutxienez, hirurehun urte lehenagotik berriak baditugu. Gure kristau fedea Amaren babesean hezi da, amaren oinazpian fedea gure inguruetara zabaldu da eta presente egon da gure herrian, gure elkartea indartuz, gure bizierari forma emanez. Amaren babesean, herria zer den ere ikasi dugu. Eta elkarrekin herriaren parte izateko sentipen honek pozten eta alaitzen ditu gaur gure bihotzak. Parte izateko sentipena gaur beharrezkoa da.

Denon artean elkartea eraikitzen dugu. Bakoitzak berea jartzen duenean denok aberasten gara. Denok dugu besteen beharra eta pozik sentitzen gara bestea nire bizitzaren parte dela sentitzen dugunean edota gu besteen bizitzaren parte gabela sentitzen dugunean.

Disfrutatu dezagun gaurko topaketaren alaitasunaz. Hemen denontzat dago lekua. Amaren etxean, beti, leku bat dugu. Disfrutatu dezagun elkarrekin egoteaz eta fedea elkarbanatzaren alaitasunaz, denak elkarrekin Jaunaren aldarearen inguruan eta Urrategiko Amaren irudiaren babespean egoteaz.

A zer nolako poz handia ematen digun besteekin elkarte osatzen dugula sentitzeak. Benetan poza eta alaitasuna sentitzen dugu Jaunaren aldarearen inguruan fedea ospatzean, ezberdintasun guztiak gaindituz eta, anai-arreba sentitzeko gauza garelara adieraziz.

Jar gaitzen alaitasun eta pozaren alde. Erabaki dezagun guztion onaren eta anaitasunaren alde jartzea. Izan gaitzen herri eta elkarte batuago bat. Aniztasuna errespetatu dezagun, eta egin dezagun apustu bat guztion onerako. Alaitasuna Izpirituaren fruitua da; alaitasun eza, berriz, izpiritu txarraren fruitua da, eta anaitasun eta adiskidetasun sozialaren idealetik aldentzen garenaren sintoma.

Desberdinak gara, Jainkoari esker. Anaitasuna ez da denok berdinak izatea edo berdin pentsatzearen emaitza, baizik eta ezberdinak izanik, guztiok norabide berean begiratzea eta guztion ongia eta besteen zoriona bilatzea.

Egin dezagun otoitz gaur gu guztion alde, gure fedea eta Jaunarekin lotuta egotearen sentipen hau gure bizitzako osagai inportantea izan dadin beti, hainbeste urtez izan den bezala. Eska diezaiogun Jaunari grazia hori gure bizitzarako, gure familientzat, gure auzokide guztientzat.

Eska diezaiogun Jaunari herriko beste batzuekin bat eginda sentitzeko alaitasunaren grazia eta denon artean eliza eta elkarte eraikitzeke grazia. Jainkoa lagun eta Berarekin lotuta, aurrera goaz beti.

Egun hauetan ere, Joxean gure apaizaren heriotzaren lehen urteurrena betetzen dugu. Ez ahaztu gure apaizak izan direnen alde otoitz egiteaz. Joxean gizon eta apaiz ona izan zen benetan. Azken urteak zuekin pasatu zituen, gaixorik baina benetan gustura. Berak benetan sentitu zuen anaitasun eta hurbiltasunaren samurtasuna. Zuei benetan eskertuta zegoen zuekin eta bereziki, zuen parrokoa dena Felixekin eman zion laguntza eta adiskidetasunagatik. Oroitu Joxean zuen otoitzetan. Oroitu baita ere zuen otoitzetan zuen gotzainaz, zuekin lotuta sentitzen da benetan eta zuek beren otoitzetan ere baitzaudete. Mila esker, berriro, ematen didazuen abegi eta harrera onagatik. Gora bihotzak!

LOIOLAKO IGNAZIO DEUNAREN OSPAKIZUNA AZPEITIAN SAN IGNACIO DE LOYOLA EN AZPEITIA

Azpeitiko Soreasuko San Sebastian parrokian

2024 uztaila / julio 31

Apaiz lagunok,

Azpeitiko bizilagun eta San Inazioaren maitale guztiok, Herriko ordezkari agurgarri eta gaurko festarako kanpotik etorri zareten guztiok, Bakea zuekin, anaia maite-maiteok!

Gaur benetan jai eguna dugu Azpeitian. Egiaz alaitasun handiko festa da San Inazio eguna. Festa giroa nabaria da herrian. Baina ez hemen bakarrik. Gaurko jaiak oihartzun handia du gure lurraldeetako leku guztietan, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan. Eliza osoan, baita ere. Izan ere, Inazio ez da edonor santuen artean. Berak eta bere semeek, Elizari eta gizarteari eman dieten kutsua izugarria izan da. Azpeitiarrek, harrokeriarik gabe, baduzue harro sentitzeko arrazoi handi bat. Hemengo elizako pontean San Inazio bataiatua izan zen, zuetariko asko bataiatuak izan zineten bezala. Benetan pozten naiz zuekin egoteaz berriz gaur hemen eta festa hau zuekin ospatzeko aukera eduki-tzeaz. Inazio santuaren bataioko pontearen aurrean gogoratu nahi dizuet gure bataioaren garrantzia. Santuak berak gogoratzen digu. Harrotasun horren parean, San Inazio festa ospatzeak gogoratzen digu hori dela gure bizitzako norabidea: kristau onak eta santuak izatea. Erronka handia dugu, benetan.

Eman diezaiegun begiradatxo bat gaurko jaiaren liturgiako irakurgaiei. Deuteronomio liburuak, Jainkoaren bidea jarraitzera gonbidatzen gaitu. Honela dio Jainkoak Moisesi: begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut zure aurrean. Jainkoaren aginduak betetzen badituzu, biziko zara. Ez baduzu egiten, hondatuko zara. Egokiera honetan bizitza aukeratu behar da. San Inaziok honi deitzen zion diszernimentua, bereizmena.

Bigarren irakurgaiak azpimarratu nahi digu zertan datzan gure zoriontasunak: «Ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik». Kontraesana dirudi, baina egiaz, denok dugu esperientzia hau: zoriontsuak gara eta benetan pozik gaude geure buruaz ahaztu eta besteak zoriontsu egiten ditugunean. Bestearen zoriona bilatzen dugunean, geurea aurkitzen dugu.

En Ignacio encontramos esta verdad en su lema vital que fue, para él y ha sido para tantos, todo un programa de vida: «En todo amar y servir». Cada vez que nos olvidamos un poco de nosotros mismos y damos espacio a los demás, encontramos la fuente de la verdadera alegría. Disfrutemos todos hoy de la alegría del encuentro con los demás. Al hacer fiesta recordamos lo importante que es convivir con los demás en armonía. Disfrutemos, pues, de la fiesta, de la alegría de sentirnos unidos como pueblo y como hermanos. Todos juntos en torno al altar del amor que nos convoca y a esta pila bautismal de San Ignacio que nos desafía a vivir como hermanos, según el bautismo que un día también nosotros recibimos.

Hoy también es un día para despedir casi oficialmente a quien ha sido tantos años vuestro párroco y vuestro vecino, D. Kepa Susperregi. Se hace difícil también para un obispo tener que proponer una nueva encomienda pastoral a quien ha estado tanto tiempo en un lugar. Badakizue ez dela erraza: ez zuentzat, ez zuen gotzainarentzat, ezta batez ere Kepa berarentzat. Cuando vine a hablar con vuestro párroco y agradecerle personalmente su disponibilidad ante la propuesta me dijo: «Me va a costar salir después de tanto tiempo. En verdad, la idea no me gusta. Estoy cómodo aquí y muy hecho»... pero, a renglón seguido, me contó que algo parecido le había pasado a un entrenador de la Real Sociedad cuando le hablaban sobre su futuro. La respuesta de Kepa fue la de un sacerdote de los de verdad. Esos por los que este obispo se siente tan orgulloso, pues son la grandísima mayoría de nuestros sacerdotes en Gipuzkoa.

Esto me dijo Kepa: «No me gusta la idea de cambiar... pero mi gusto o mi comodidad no son la última palabra. El día que me ordené de sacerdote prometí ante el pueblo de Dios que mi vida estaba disponible para Dios y para

la Iglesia. Ha llegado ese momento en el que el Obispo, en medio de tantas necesidades me lo pide y no hay razón para decir que no».

Así, con cierta pena, pero con la alegría de saber que las comunidades cristianas de Zarautz y de Getaria tendrán un pastor, y que estas de Azpeitia y alrededores seguirán teniéndolo (que no es cosa fácil hoy por hoy), tenemos que dar hoy gracias a Dios. Damos gracias a Dios por la vida y el ministerio de D. Kepa Susperregui entre vosotros durante tantos años y le pedimos por el fruto de su nueva encomienda. No se va a la China. Tan solo a unos kilómetros, más cerca del mar. Gracias a vosotros, queridos hermanos de la comunidad cristiana de Azpeitia por cuidar de él tantos años, por entrenarlo y por acoger esta noticia del cambio de párroco con generosidad y magnanimidad cristianas. Gracias, Kepa, por tu servicio y por tu testimonio de disponibilidad y generosidad. A buen seguro, el Señor te compensará. Y no te vayas del todo. Aquí siempre tendrás gente que te quiere y que de vez en cuando agradecerán tu visita.

«En todo amar y servir». El amor y el servicio son esos ingredientes de la vida de un buen pastor, de un buen sacerdote, como lo es D. Kepa. Pidamos hoy al señor por los sacerdotes; por los que tenemos y por los que el Señor nos quiera dar si así lo quiere. Y disfrutemos de la alegría en este día de fiesta. De la alegría de sentirnos pueblo con los demás, de la alegría de convivir, de la alegría de la armonía entre nosotros, aún en medio de nuestras diferencias. Seamos un pueblo más unido. Respetemos la pluralidad y apostemos por el bien común de todos. Desberdinak izan arren, norabide berean begiratu behar dugu: besteen ongia eta zoriona. Hori da gure bidea. Denok dakigu zenbat eta gehiago bilatu guztion ongia, orduan eta hobeto doakigula.

Mila esker beste behin herri honetan ematen didazuen harrera eta abegi beroagatik. Zuen gertutasuna eta samurtasuna sentitzen dut. Eskerrik asko zuen otoitzengatik, benetan. Gaur, eskatzen diot Jainkoak zuei eta zuen familakoei gehien behar eta komeni zaizuen eman diezazuen. Hala bedi.

LOIOLAKO IGNAZIO DEUNAREN OSPAKIZUNA LOIOLAN SAN IGNACIO DE LOYOLA, EN LOYOLA

Loiolako Santutegia, 2024 abuztua / agosto 1

Apaiz lagunok, Inazioaren seme maiteok, agintari agurgarriok, Azpeitiko lagun emakume eta gizon, leku desberdinetatik Loiolako santutegira etorri zareten guztioi, kristau senide maite- maiteok, Bakea zuekin!

Beste urte batez, San Inazioaren jaiak bildu gaitu, Loiolako Santutegi honetan. Gertu dugu Inazioaren oinetxea. Pozik gaude, beraz, hemen egoteaz. San Inazio, Gipuzkoako seme bikain bat da, benetan. Bera eta beregandik sortutako Lagundiak, egiaz, Eliza osoa argitu, aberastu eta indartu egin du historian zehar. Teologiak, gogo-bizitzak, pastoral ekintzak eta misioak asko zor diote, benetan.

Hemendik atera zen Inazio bere bidea egitera. Gero, hemen aurkitu zuen baita ere bere bihotz berritzearen edo konbertsioaren bidea. Bere aldaketa ez zen bere onerako bakarrik izan, Eliza osoaren onerako ere izan zen. Bere bizitzak eta erakutsitako bideak gu ere laguntzen gaituzte.

Gaurko liturgiako lehenengo irakurgaiak Inazioarentzat oso garrantzitsua izan zen zerbaiti buruz hitz egin digu. Deuteronomio liburuak, Jainkoaren bidea jarraitza gonbidatzen gaitu. Honela dio Jainkoak Moisesi: «Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut zure aurrean. Jainkoaren aginduak betetzen badituzu, biziko zara. Ez baduzu egiten, hondatuko zara». Bideak aukeratu behar ditugu bizitza honetan. Eta batzuetan, ez da erraza. San Inaziok honi diszernimendua (bereizmena) esaten zion. Espirituari eskatu behar diogu adimen argia, ona edo txarra zer den bereizteko.

En esta línea, el año pasado os recordaba una de las catequesis que el Papa nos ofreció sobre este tema del discernimiento. Decía Francisco: «Recuerda que las elecciones que hagas en esta vida tendrán una consecuencia, para ti,

para los demás y para el mundo; puedes hacer de la tierra un magnífico jardín o puedes convertirla en un desierto de muerte».

Orain dela gutxi, Eusko Legebiltzar eta gobernu berria estreinatu ditugu. Iaz, egun hauetan, Gipuzkoako Foru Aldundia ere berriztatu zen. Niri ere, oraindik esaten didate, Donostiako gotzain berria naizela. *Quizá esa frase que dice el refranero de «escoba nueva, siempre barre bien» tenga algo de sabiduría, pero bien sabéis también vosotros, queridas autoridades, que las urgencias y los importantes empeños que requiere la cosa pública hacen que no se pueda bajar la guardia ni el esfuerzo por discernir y tomar las mejores decisiones posibles y las más adecuadas.* Guztion kontua da: gobernuan daudenena eta oposizioan daudenena, baita ere. Jokoan dagoena oso garrantzitsua baita. *Está en juego nada más y nada menos que el bien de nuestra sociedad en lo más cercano.* Horregatik inportantea da asmatzea eta ondo aukeratzea. Eta, badakigu, ez dela erraza.

Aunque trazarse planes está bien, el día a día, con sus exigencias, será más bien el que marque el camino. Por eso es más importante tener claros los principios desde los que trazar proyectos y soluciones. Además de los que hoy nos ofrecen las lecturas que hemos escuchado, permitidme compartir con vosotros unos principios útiles, que nuestro Papa Francisco definió al comienzo de su pontificado en su carta programática «Evangeli gaudium», y que él mismo dice en ese texto que son «principios para construir un pueblo». A mí me sirven también como obispo, y quiero que sean los principios sobre los que se construya nuestra Iglesia diocesana. Como son unos buenos consejos, os los comparto, por si pueden ayudar. Considero que en estos tiempos de polarización en todos los niveles y en todos los ámbitos, en que el antagonismo predomina y no pocas veces tensa la cohesión social más allá de la cuenta, nos viene bien escuchar estas sabias palabras y reflexionar sobre ellas. Dice Francisco que hay cuatro principios que se mueven entre tensiones:

1. *«El tiempo es superior al espacio». Es importante la paciencia, más que querer llenar los espacios inmediatamente. Es más útil iniciar procesos, poner bien el horizonte y caminar poco a poco hacia él, que querer dar soluciones*

inmediatas o cortoplacistas a las cosas. No hay que dejarse llevar por la ansiedad de tener que ofrecer inmediatos resultados. Beraz, espazioren gainetik, denbora dago.

2. printzipioa: Gatazkaren gainetik, batasuna dago. «*La unidad es superior al conflicto*». Benetan, aurkitu behar dugu non dagoen oreka hori. *Es mejor una unidad imperfecta que un ideal maravilloso que nos lleve al conflicto y nos mantenga permanentemente en él.*

3. «*La realidad ha de prevalecer sobre la idea*». Errealitatea, ideia baino garrantzitsuagoa da. *El realismo nos hace vivir en humildad, nos hace ver nuestra fragilidad y ajustar nuestras fuerzas a lo que somos realmente. El idealismo, las ideologías mal entendidas, nos llevan a no tener los pies en la tierra, a protestar por todo sin proponer nada mejor, y querer imponer nuestra visión de parte, a veces de corte quimérica, a los demás.*

Eta 4.a: «*Zatiaren gainetik, osotasuna dago*». «*El todo es más que las partes, y más que la suma de las partes*». *Hay un bien común que construimos entre todos, que ha de estar por encima de nuestras ideas particulares o de parte. La inclusión y el contar con todos es absolutamente necesario para construir algo juntos que realmente dure. La buena política no es una cuestión solo de mayorías. Ha de buscar siempre amplios consensos para que realmente sea eficaz. Querer hacer las cosas solo con nosotros y los nuestros, es un auténtico error.*

Bigarren irakurgaian entzun duguna, ildo horretatik doa. San Paulo Apostoluak proposatzen digu bide ziur bat. «*Ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik*». «*No busco mi propio bien, mi propia ventaja, sino el bien de los demás*» nos ha dicho el Apóstol. Besteen ongia (guztion ongia) bilatzen dugunean, asmatzen dugu bizitzan. Are gehiago esango nuke, *me atrevo a decir más. Cuando, además de buscar el bien de los demás lo buscamos con los demás, acertamos aún más, hacemos las cosas mejor, con más apoyo; así, las soluciones se hacen más sólidas y duraderas.*

Benetan polita eta santua da zuen eginbeharra. Politza bezain zaila. Eskerrik asko, agintari maiteak. Badakit horretan zabilatzatela. *Gracias, de corazón, queridas autoridades. Sé que os empeñáis en el bien común, con no poco esfuerzo e ilusión, en medio de un mundo de equilibrios muy complejos. Los ciudadanos, que os exigimos, a veces incluso más de la cuenta, os agradecemos vuestra disponibilidad para servir a la ciudadanía. En nombre de la comunidad cristiana os agradezco, de corazón, vuestro noble empeño y me ofrezco para colaborar con lealtad e ilusión en este empeño por el bien común en todo lo que podamos.*

Por último, permitidme que os recuerde una vez más que siempre hay gente a la que no llega el bienestar del que la mayoría disfrutamos. Los más pobres han de ser siempre como una alarma que nos recuerde cuál es el objetivo final de todo empeño en la cosa pública. También para la comunidad cristiana. Que mis palabras sirvan hoy de aliento para todos en este camino de servicio, en el que encontramos la alegría y el verdadero sentido a nuestra vida.

San Inazio jaia jaiotetxe honetan ospatzeak erakusten digu nola aukeratu. *Recordémoslo siempre: zerbitzuaren bidea aukeratzen duenak, asmatzen du. Ez dago basamorturik gure indarrak horrela bideratzen baditugu. Constru-yamos entre todos ese magnífico jardín, en el que todos podemos sentir la belleza de la armonía aún en la diversidad.*

Aurrera, lagun maiteok, eta mila esker. Eska diezaiogun egun honetan gure santuari: Inazio, izan zakizkigu lagun, eta erakar ezaiguzu Jainko gure Aitaren bedeinkapena!

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA ASUNCIÓN DE LA BIENAVENTURADA VIRGEN MARÍA

Koruko Andre Mariaren Basilika

2024 abuztua / agosto 15

Apaiz lagunok, eliztar eta fededun maite guztiok:

Atzo, Eliza zabal hau gainezka genuen. Mariaren gaurko jaiaren inguruan, donostiar eta kanpotik etorritako asko bildu ginen Mariaren omenez. Salbea entzun eta kantatu genuen, pozez eta emozioz beterik.

Gaur, Donostiako aste nagusiaren erdian, Maria maite dugun Donostiako eta inguruko kristauok Ama Birjinaren mezan parte hartzera etorri gara. Donostiako kristauontzat, meza hau jaiaren bihotza da. Meza honetara etorriaz ez dugu batez ere antzinako ohitura bat betetzen, baizik eta gure sinesmena aitortzen eta ospatzen.

Gaurko jaieguna benetan ederra eta pozgarria da donostiarrentzat. Atzo esan nizuen bezala, nik bihotz-bihotzez opa dizuet poz handiz eta alaitasun biziz igaro dezazuela gure Aste Nagusian geratzen diren egunak. Izan dadila gaurko alaitasuna, beste lagun eta hiritar guztiekin batera biziko dugun jaiaren fruitu gozoa.

Celebramos el misterio de la Asunción de María, festividad muy querida para los donostiarra, y también en tantos lugares. Una fiesta celebrada y querida, por lo que significa desde su perspectiva religiosa pero también porque este día 15 de agosto es día nuclear de las fiestas de la Semana Grande donostiarra. La gran confluencia de gente a los actos litúrgicos y religiosos nos hace ver que junto a otros programas de la fiesta y actividades, la fe forma parte importante y muy querida de nuestras tradiciones y de nuestra ciudad. Sin duda, la fe cristiana y los valores que de ella nos vienen enriquecen y fecundan la vida de la ciudad, a la vez que aportan un horizonte ético

a nuestra vida como ciudadanos, que buscan la armonía en la convivencia y el bien común. Incluso muchos no creyentes agradecen y consideran esta riqueza que la comunidad cristiana aporta al bien común.

Sinestedunontzat, sinesmen honek dio Mariak hartu duela Jainkoarengandik betirako salbamen osoa. Mariaren Zeruratzek gure geroaren aurrerapena erakusten digu. «Zorionekoa zu, sinestu baitzenuen». Isabel senitartekoak esan zizkion hitz berekin guk ere zoriontzen eta goratzen dugu gaur gure Zeruko Ama.

La liturgia de la Iglesia, en sus lecturas escogidas, una vez más nos invita a mirar al Cielo. Mirando al cielo, y al horizonte de bien, de plenitud y de gracia que nos espera, elevamos nuestra mirada y ampliamos la visión, de modo que no nos quedamos encerrados en una visión corta de las cosas, en una visión inmediata, que a veces nos lleva a sobrepreocuparnos en exceso. María nos enseña a relativizar sanamente muchas cosas, dando importancia a lo que verdaderamente es importante. Ampliar la mirada y el horizonte nos ayuda a situar mejor las cosas y a valorarlas en su justa medida. Esa mirada creyente es la que a nosotros nos interesa como seguidores de Cristo. Mantener una mirada amplia sobre la historia es lo que distingue, precisamente al creyente de quien no lo es.

Desde su postración en la Casa de Loyola, tras su grave herida en la batalla, cuenta San Ignacio que cuando miraba al Cielo, la tierra le parecía pequeña, pobre y desamparada. Al contemplar la gloria y el horizonte de gracia al que estamos llamados, veía las cosas de otra manera, como iluminadas por una luz especial, la luz de Dios que, en su Misericordia, tiene para nosotros reservado siempre lo mejor. En esa pequeñez y desamparo, Ignacio encontraba un motivo para querer hacer de la tierra un pedazo de Cielo.

Así nosotros, lejos de evadirnos de la realidad que nos toca vivir, en ese horizonte celestial al que apunta hoy la fiesta de la Asunción, encontramos precisamente la razón de nuestro compromiso con la vida. ¡Qué empeño tan precioso, querer hacer de esta tierra pequeña, pobre y desamparada un pedazo de ese cielo que esperamos!

La fe nos da la confianza y la fuerza para vivir todo esto. En María encontramos un estímulo y una compañera ideal en este camino.

Mariaren Zeruratzea gure bizitzan itxaropenaren ezaugarri eder eta pozgarri bihurtzen da. Mariaren jasokundeak badu guretzat irakaspen eder hau. Bizitzako pozak, ametsak eta saminaldiak ezagutu zituen Andre Mariak. Saminaldiak ugari. Saminaldi hauen azkenean hartu zuen oparo Jaunarengandik garaipen argitsu eta betea. Bere bizitza osoan Jainkoak nahi zuena egiten, zintzo ahalegindu zelako. Atsekabeetan Jaunaganako konfidantza osoa inoiz galdu ez zuelako.

Mirar al cielo nos ayuda a relativizar... y también a vivir la fiesta. Eso os deseo hoy: que seamos capaces de vivir la fiesta y disfrutar de ella. Hagamos de la fiesta y de la semana grande un anticipo de la alegría que un día viviremos todos juntos en el cielo junto a Dios. Tomar un poco de distancia y sumergirnos de vez en cuando en ese lado lúdico de la vida, nos ayuda a mirar los problemas de otra manera, y a no dejar que se conviertan en obsesiones para nosotros.

Jaiak behar ditugu. Beharrezkoak dira gure arazoket ito ez gaitzaten. *Las fiestas y las vacaciones son necesarias para recomponernos, para dejar que la alegría de vivir que quizá haya languidecido con el peso de los días, vuelva a florecer en nosotros. No nos olvidamos de los problemas ni nos alejamos de ellos. Desde esta mirada creyente, simplemente, tomamos la distancia adecuada para afrontarlos mejor, con más paz, con más esperanza. En las fiestas pregustamos, de alguna manera, esta alegría que un día será plena en el Cielo.*

Hoy, al celebrar la Asunción de la Virgen, miramos al cielo y alzamos un poco nuestro vuelo para ver las cosas con esa mirada creyente, con esa mirada que sabe que nuestro destino es una fiesta final de alegría imperecedera.

Pidamos a la Virgen, a quien llamamos, precisamente, «puerta del Cielo», la gracia de iniciar cada día alzando la mirada hacia el cielo, hacia Dios, para decirle: «¡Gracias!», como dicen los pequeños a los grandes, y dejemos que su amor infinito e incondicional nos fortalezca en el camino.

Jesus gure Salbatzaileak, eta Andre Mariak, Jainkoaren Amak, lagun dezaitgutela gure asmo onak betetzen.

ARANTZAZUKO MARIA BIRJINA DOHATSUA BIENAVENTURADA VIRGEN MARÍA DE ARANTZAZU

Arantzazuko Santutegia, 2024 iraila / septiembre 9

Apaiz lagunok, herri agintari maiteak, eliztar eta fededun maite guztiok:

Pasa den urtean, egun honetan, Erroman nengoen Gotzain Berrien ikas-taroa egiten, eta ezin izan nuen zuekin egon gure Elizbarrutiarentzako egun inportante honetan. Gaur, bai.

Beste urtetan bezala, Santutegiko Eliza honetara jende mordoak hurbildu da. Arantzazuko Mariaren gaurko jaiaren inguruan, gipuzkoar asko biltzen gara Mariaren omenez. Gure Gipuzkoako Amaren eguna ospatzen dugu. Ohitura polita da benetan, baina ez da hori bakarrik. Ez da bakarrik ohitura bat. Kristauontzat, meza honetara etorriaz ez dugu batez ere antzinako ohitura bat betetzen, baizik eta gure sinesmena aitortzen eta ospatzen dugu. Gure kristau-elkarteak Arantzazuko Ama Marian, bere bizitzarako argia eta inspirazioa aurkitzen du.

Arantzazuko Ama ospatzen dugu, gipuzkoarrantzat oso maitea den jai, bere erlijioaren ikuspegitik eta gure elizbarrutiko tradizioaren parte garrantzitsua eta oso maitea delako. Dударik gabe, kristau fedeak eta horretatik datozkigun balioek gure herriaren bizitza aberastu eta ernaltzen dute, eta, aldi berean, elkarbizitzan eta guztion onean harmonia bilatzen duten herritar gisa gure bizitzari horizonte etikoa ematen diote. Gipuzkoan, fededun ez diren askok ere eskertzen dute, eta kristau elkarteak guztien onari ematen dion aberastasun hori aintzat hartzen du.

Gaurko jaieguna benetan ederra eta pozgarria da Gipuzkoako kristauen-tzat. Gogora dezagun pixkat gure Arantzazuko Ama Mariaren historia. Gogoratu nola Baltzategi baserriko Errodrigok, etxeko ahuntzen bila zebilela, zintzarri-hotsa entzun omen zuen. Gogora dezagun Errodrigoren inozentzia,

amaren irudia arantza artean aurkitzean. Arantzan, zu? *¿Tú entre los espinos?* Benetan gertakizun esanguratsua izan daiteke gaur guretzat ere.

La alegría de María al visitar a su prima Isabel que hemos escuchado en el Evangelio no es una alegría al margen de la vida normal; en la vida normal también hay espinas y también dificultades. Historia honetan inspirazioa aurkitzen dugu gure bizitzarako. *Los creyentes, sabemos que, también en medio de las espinas, en medio de las dificultades de la vida, podemos encontrar la presencia de Dios, la presencia también de María que nos acompaña y nos sostiene. ¡Qué distinto es vivir las dificultades cuando nos sentimos acompañados en medio de ellas! ¡Qué diferentes se viven las penas cuando estamos al lado de nuestra madre! Los que todavía tenemos la suerte de tener madre sabemos muy bien lo a gusto que se está en casa cerca de ella.*

Arantzazuko Amarekin egotea gure bizitzan itxaropenaren ezaugarri eder eta pozgarri bihurtzen da. Mariaren bisitazioak badu guretzat irakaspen eder hau. Bizitzako pozak, ametsak eta saminaldiak ezagutu zituen Andre Mariak ere. Bere bizitza osoan Jainkoak nahi zuena egiten, zintzo ahalegindu zen. Atsekabeetan Jaunarenganako konfiantza osoa inoiz galdu gabe.

Baditugu guk ere saminak eta nahigabeak. Bihotza goibeldu eta geroa iluntzen dizkiguten ezbeharrak. Irtenbiderik ez dagoela pentsarazten digutenak. Itxaropena moteltzen diguten akatsak, eragozpenak eta trabak. Baina sines-tunak gara, eta Jaunaren promesean sinisten dugu. Gogoratu promesa hone-taz: Ni zuekin egongo naiz, beti. Zuekin nago eta egongo naiz beti, mundu hau bukatu arte. Ta hori da gure fedea: Jauna beti-beti gurekin egongo dela.

Al celebrar nuestra fe en Arantzazu, fortalecemos la propia fe de cada uno. Arantzazu es un lugar donde se experimenta de una manera más fácil si cabe la proximidad de Dios, en medio de una naturaleza exuberante que nos habla de la grandeza y el poder de Dios. Un espacio en el que nos sentimos también como en casa de la Madre. Nos sentimos bien. No dejemos de venir aquí, una y otra vez, a renovar nuestra fe. Aquí encontraremos hermanos, nos encontraremos todos juntos bajo el amparo de María, unidos, celebrando la fe. Bien sabemos que Arantzazu es un lugar privilegiado para hacerlo. Un

lugar en nuestra diócesis que es como una llamada, como una reserva espiritual también para nuestra vida. Aquí los guipuzcoanos, y las guipuzcoanas, recibimos la gracia de encontrarnos con Dios, quizá con mayor verdad, un poco apartados de los ruidos de la ciudad, con mayor intensidad. Y si nos dejamos, y hacemos un poco más de silencio en nuestra vida, escuchando la naturaleza, y como Dios nos habla a través de tantas cosas, lo viviremos también con más profundidad.

Gipuzkoatik barrena etorri garen guztiok, bi gauza, batez ere ditugu Maria-
ren aurrean Jaungoikoari eskatzeko: lehenengoa, herriaren sinesmena zain-
du, sendotu eta aberastu dezala eskatzen diogu, hain sakon sartuta egon den
fedea ez dadila gure herrian moteldu. Bigarrena, eskatzen diogu Jaunari gure
familien alde. Kurtso hasieran, Jainkoaren bedeinkapena eta amaren babes
eskatzen diogu gure familiakoentzat eta gure gertukoentzat. Baina ez ahaz-
tu: *la Fiesta de la Virgen de Arantzazu es una fiesta que ha de llegar a todos
los guipuzcoanos, en especial, a aquellos que necesitan también ser visitados
por María y les llene nuestra presencia de alegría, para aquellos que están
aflicidos por problemas, por tristezas, para aquellos que viven siempre con
una mirada hacia abajo. Es una fiesta para que todos miremos hacia arriba.*

Mila esker, frantziskotar anaidiari, hemen ematen duzuen harreragatik.
Zuei esker, edonork aurkitzen du leku honetan zuen abegia eta Arantzazuko
Amaren abegi gozo eta xamurra. Hona etortzean, denok etxeokoa sentitzen
gara. Benetan Amaren etxean sentitzen gara zuei esker. *Gracias, de cora-
zón a todos los presentes que habéis venido a celebrar este día de fiesta a
Arantzazu. Como decía, compartir la fe, fortalece la de cada uno. Todos los
presentes sois, en gran medida, el testimonio de fe y de esperanza para nues-
tra diócesis. Para nuestra querida Gipuzkoa y también para este obispo que
os quiere y reza por todos vosotros. Pedimos al Señor que la protección de
la Virgen de Arantzazu también llegue a nuestras autoridades. Y que, desde
ellas, construyamos con ellas, entre todos, un bien común que cada día se
hace más necesario. Que seamos capaces de dialogar, de entendernos, de
llegar a buenos acuerdos. Que seamos capaces de alejar de nosotros ese gran
pecado de nuestra época, que es, pensar solo con los nuestros. Olvidándonos*

que la verdad es sinfónica. Es una sinfonía que construimos entre todos. Los que gobiernan, los que están en la oposición, y sobre todo, el pueblo, que es en definitiva quien elige a nuestros representantes. Que seamos capaces de alejar de nosotros toda polarización. Y que nos centremos en lo importante, que es crear una armonía entre todos y construir juntos el bien común.

Eska diezaiogun Jesus gure Salbatzaileari, gure Arantzazuko Amaren birtartez, lagun diezagula gure asmo onak betetzen eta behar duguna lortzen. Hala bedi.

ON JOAQUÍN ASTIZ APAIZAREN HILETAN EN EL FUNERAL DEL SACERDOTE D. JOAQUÍN ASTIZ

*Donostiako Seminarioko Kristoren Piztuera elizan
2024 iraila / septiembre 11*

On Joaquinen senide eta lagun maiteok,
gerturatu zareten apaiz maiteok, kristau elkarteko adiskide anai-arreba
maiteok.

«Generoso colaborador, entusiasta misionero», así describe Mons. Néstor Herrera, obispo de Machala (Ecuador) a nuestro hermano Joaquín en el mensaje de condolencia que me ha enviado y que lo extiende a toda la diócesis.

Cuatro palabras que resumen bien una vida cristiana lograda: generosidad, entusiasmo, colaboración, misión. Sí, así ha sido la vida de nuestro hermano

sacerdote Joaquín Astiz. *A nadie nos cabe la menor duda. Un hombre de Dios, rico en humanidad, de perfil muy evangélico en su pobreza, en su entrega, en su entusiasmo por el Reino y por la Misión de la Iglesia.*

Bizitza oso baten ondoren joan zaigu bere betiko-etxera, Aitaren etxera. Berak, bere ibilbidea egin du. Gure fedea esaten digu bera badagoela jadanik atsedena hartzen Jainkoaren besoetan. Horretan sinesten dugu kristauok. Esperantza horrekin egiten dugu gure erromesbide hau. Gure anaia Joaquinek, fede horretan sinesten lagundu zigun. Egunen batean gu ere, Jainkoa lagun, gure ibilbidea amaitu ondoren, Jainkoaren etxera bueltatuko gara. Han zoriontsu izango gara beti betiko Jaunaren besoetan. Halaxe espero dugu.

He tenido la suerte de compartir algunos momentos con Joaquín. Me queda también el recuerdo de sus últimas horas, lleno de paz y sereno. El vicario general el día anterior le había dado la Unción. Nos acercamos a visitarle D. Mikel, Luzia y un servidor. Estaba tranquilito y quizá le despertamos. Le dije que estábamos orando por él, para que el Señor le diera paz y le ayudara a vivir su voluntad. Le dije también que orara por todos nosotros. De su boca, ya sin muchas fuerzas, solo salió una palabra: 'Eskerrik asko'. La repitió varias veces.

Todo un testimonio de vida que se va agradecido a la vida, agradecido a los hermanos que le acompañaron en la vida. Joaquín era un hombre culto y de corazón inquieto. Entusiasta, casi ingenuo, con esa sencillez evangélica que todo lo cree, que todo lo espera. Un hombre muy vital, sin duda, que gozaba de las relaciones humanas y de la fraternidad sacerdotal.

Zuetariko batzuek nik baino askoz hobeto ezagutu zenuten on Joaquín. Nik baino askoz gehiago tratatu duzuenok, Jainkoak oparitu ziguna beraren bitartez ezagutu duzue benetan. Gizon atsegina, bere eginbeharrak betetzen zintzoa. Gaur, agur egitean, maitasunez gogoratzen ditugu bere izaera eta jokaera. Batez ere, gogoratzen dugu nola fedea eta itxaropena nagusi izan ziren bere bizitzan.

Hemen gaude, beraz, beraren alde otoitz egiteko eta bere apaiz bizitza gogoratzeko eta eskertzeko. *Damos gracias a Dios por su testimonio misionero, por su sencillez humana y su gran servicio a la Misión cuando estuvo en América y cuando estuvo aquí, a cargo de la Delegación diocesana de Misiones.* Hemen apaiz asko gaude agur esateko, bere bizitza eskertzeko. Hemen gaude fedea ospatzen, Joaquin agur esaten. Espero dugu elkar berriz ikustea egunen batean Jaunaren etxean.

Benetan asko ikasi behar dugu gure apaiz agurgarriengandik. Asko ikasten dugu beraien elizarekiko leialtasunagandik eta fedearen testigu eta sustatzaileak izateagatik. Miresgarriak dira, benetan, beraien bizitza eta istorioak, bere testigantza. Asko zor diegu, benetan. Atzo Manci agurtzean gauza bera esan nuen Zumaian. Ona da gogoratzea eta gogoraraztea. Fedearen testigu izateaz aparte, badakigu ze gauza onak egin dituzten gure apaizek.

Jainkoaren gizon bat joan zaigu. Beste bat. Jainkoari eskerrak eman besterik ezin dugu egin. Eta hori da gaur Jainkoari eskatu nahi dioguna. Zeruko Aita onak Joaquin, gure anaia, besarka zaitzala, sekula amaituko ez den besarkada santuan.

Horrela gustatzen zait bukatzea gure apaizon hiletetako homiliak: *Acuérdate de nosotros, Joaquín, querido amigo y hermano sacerdote. Acuérdate de esta diócesis tú que ya estás cara a cara, disfrutando de la vida eterna ante el Señor. En esa esperanza caminamos. Ahora que confiamos estés en los brazos del Buen Pastor; pídele de nuestra parte que envíe a esta diócesis sacerdotes para cuidar la fe de hoy y de mañana del pueblo santo de Dios. Que nos envíe algunos pastores, enamorados del Reino, buenos pastores, como tú lo has sido, querido hermano Joaquín.*

Agur eta eskerrik asko, Joaquin maitea. Mila esker zure bizitza Jainko herriarentzat zeruko argiaren izpi handi eta distiratsu izan bait da. Egun handira arte, lagun. Eskerrik asko.

Que su alma, y las almas de todos los fieles difuntos, por la misericordia de Dios descansen en paz. Amén.

IKASTURTE HASERA DEUSTOKO UNIBERTSITATEAN INAUGURACIÓN DE CURSO EN LA UNIVERSIDAD DE DEUSTO

Campus de San Sebastián, 26 de septiembre de 2024

Queridos hermanos y hermanas,
autoridades académicas, profesores, alumnos y toda la comunidad universitaria:

Hoy, al inicio de este curso académico, nos encontramos llenos de esperanza y con la ilusión de afrontar un año nuevo lleno de retos y oportunidades. En nuestra ciudad, el Festival de Cine de San Sebastián nos invita a soñar, a crear y a compartir historias. Pero más allá de las pantallas, estamos llamados a vivir y a pensar sobre nuestra propia historia, escrita cada día en nuestras decisiones, esfuerzos y relaciones. Esta universidad jesuita, la Universidad de Deusto, nos ofrece un marco privilegiado y de calidad para crecer en sabiduría, compromiso y discernimiento, buscando siempre el *Magis*, ese 'más' que San Ignacio de Loyola nos enseña a aspirar, no para nuestra gloria, sino para la mayor gloria de Dios.

El evangelio que hemos escuchado nos presenta a los discípulos encerrados por miedo tras la muerte de Jesús, cuando de repente Él se aparece en medio de ellos y les dice: «Paz a vosotros». Es significativo que Jesús llegue en un momento de temor y bloqueo, para darles el don de la paz y el Espíritu Santo, enviándolos en misión: «Como el Padre me ha enviado, así también os envío yo». En este gesto, Jesús no solo les da su paz, sino que los envía a ser instrumentos de su misericordia en el mundo.

Hoy, como estudiantes y docentes, también podemos sentir ese miedo e incertidumbre ante los desafíos que nos esperan. Quizás el avance imparable de la tecnología, como la inteligencia artificial, nos genere preguntas éticas profundas. O tal vez nos preocupa cómo nuestro esfuerzo académico se traducirá en un impacto real en la sociedad. Aun así, al igual que

a los discípulos, Jesús nos dice hoy: «Paz a vosotros». Nos llama a salir de nuestras «puertas cerradas» y a ser enviados al mundo para construir sobre todo un futuro más humano, más justo y solidario. Ahí encontramos el sentido de lo que hacemos. Esa es nuestra responsabilidad y nuestro compromiso: construir un futuro más humano, justo y solidario.

La experiencia de los discípulos tras el encuentro con Cristo resucitado es también una experiencia de *discernimiento*. Ellos pasan del miedo a la acción, del encierro a la misión. En la tradición jesuítica, el discernimiento es central: es la capacidad de escuchar la voz de Dios en los acontecimientos de la vida, especialmente en los momentos de incertidumbre. Iniciamos este curso con el deseo de tomar decisiones sabias, no solo en nuestras vidas académicas, sino también en nuestras relaciones, en la forma en que empleamos nuestras capacidades para el bien común.

Aquí entra en juego la pregunta fundamental del discernimiento: ¿Cómo puedo responder a la voluntad de Dios y servir mejor a los demás? La universidad no es solo un lugar para adquirir conocimientos, sino para aprender a escuchar, reflexionar y actuar con responsabilidad. Esta es nuestra misión: buscar, mediante el discernimiento, las respuestas que nos permitan contribuir al mundo con todo lo que somos y lo que sabemos.

El discernimiento nos guía a vivir el *Magis* ignaciano, ese 'más' que San Ignacio nos invita a buscar. Pero el *Magis* no es una búsqueda egoísta de éxito o reconocimiento, sino la constante pregunta: ¿Qué más puedo hacer por los demás? ¿Cómo puedo poner mis talentos al servicio del Reino de Dios y del bien común?

En medio de las múltiples posibilidades que nos ofrece la ciencia, la tecnología y el conocimiento, se nos pide ir más allá del éxito personal.

Al comenzar este curso, recordemos que Jesús también nos invita, como a los discípulos, a ser sus testigos en el mundo. Nos envía a vivir el Evangelio en nuestras aulas, en nuestras investigaciones, trabajos, proyectos y,

sobre todo, en nuestras relaciones. Pidamos al Señor que nos conceda el don de la *paz* y la *sabiduría* para discernir cómo podemos hacer de este año académico una oportunidad para crecer en amor, en justicia y servicio a los demás.

Permitidme terminar con una cita de San Bernardo que puede ilustrarnos bien todo esto que os he querido transmitir:

«Hay algunos que quieren saber con el fin solamente de saber, y es torpe curiosidad. Hay quienes quieren saber para ser ellos conocidos, y es torpe vanidad. Hay quienes quieren saber para vender su ciencia, por ejemplo, por dinero, por honores, y es torpe ganancia. Pero hay quienes quieren saber para edificar, y esto es caridad» (San Bernardo, Sermo 36 in Cant.).

Que el Señor nos inspire para vivir este curso con una ilusión y responsabilidad renovadas. Que así sea.

BORJA PRIETO ESNAOLAREN PRESBITEROTZA ORDENAZIOA

ORDENACIÓN PRESBITERAL DE BORJA PRIETO ESNAOLA

Urretxu, Toursko San Martin, 2024 iraila / septiembre 29

Urretxuko bizilagun eta Borjaren senitartekoak,
apaiz lagun eta gaurko festarako etorri zareten guztiok, anai-arreba maiteok.
Bakea eta Jainko Aitaren bedeinkapen oparoa zuekin!

Benetan jai eguna dugu gaur Urretxuko herrian eta parrokia polit honetan; egiaz alaitasun handiko jaia. Benetan egun kuttuna. Borja, zu zara gaur begirada guztien fokua. Zure ordenazioaren testigu gara gaur. Benetan oso pozik gaude zurekin egun hau ospatzeaz. Benetan asko pozten naiz ni neu ere, gaur hemen zuekin Urretxun, zure herrian, gure fedea elkarbanatzeko aukera handi hau edukitzeaz. Pareta hauen artean bizi izan dituzu zure familikoekin eta Urretxuko zure bizilagunekin momentu zoragarriak zure bizitzan. Hemen, zure kristau sarbidea egin zenuen eta kristau izateko sakramentuak jaso zenituen, beste herriko haur eta Urretxuko gazte bezala. Baita ere bizi izan dituzu pareta hauen artean momentu zailak, zure familiako eta beste herriko bizilagunen hiletak. Herritik jaso duzu bizitza eta fedea. Ez ahaztu inoiz hori.

Querido Borja, celebrar hoy aquí tu ordenación tiene su significado. He querido que así fuera, para que nunca te olvides de tu pueblo. No me refiero a tu pueblo Urretxu. Eso sería algo imposible. Aquí tienes a los tuyos: a Jesús, tu Padre, a tu Ama, M^a Teresa, a tu hermana Patricia y tantos primos, familiares y amigos. Cuando te hablo de no olvidar tu pueblo me refiero en un sentido más amplio, a que nunca olvides de dónde has salido. Esa es siempre la toma de tierra fundamental y el antídoto contra toda mala práctica de un ministerio ordenado mal segregado, alejado artificialmente de la vida de los hombres y mujeres de su tiempo; el antídoto de toda mala tentación de pensar que ser cura le sitúa a uno por encima de los demás. Me refiero a eso que comúnmente denominamos clericalismo.

